


Elgoibarko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana

2008 - 2011



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Debegesa

Debabarreneko Garapen
Ekonomikorako Elkartea
Sociedad para el Desarrollo
Económico de Debarrena



ELGOIBARKO UDALA

2008 - 2011 Elgoibarko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I. Plana

ELGOIBARKO UDALA

Elgoibarko Udalak emakumeen eta gizonen aukera berdintasunaren oinarrian lan egin nahi du, eredu izan nahi du. Hori dela eta, atsegin handiz aurkezten dizuegu, liburuxka honetan jasotzen den Elgoibarko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako I.Plana. Tresna honen bidez 2007-2011 Legegintzaldi Planaren bi helburu nagusi betetzeko oinarriak finkatzen dira: erreferentziarako udal baterantz zuzenduriko Udalaren gizarte-erantzukizuna eta berdintasuna eta laneko eta etxeko zereginen bateratzea.

Gizartean emakumeek nahiz gizonetakoek betetzen duten eginkizunak aldaketa nabarmenak izan ditu; emakumeak lan merkatuan duen partehartzeak gora egin du, prestakuntzan eta kulturari izan duen sarbidea egunetik egunera handiagoa da, eta neurri txikiago batean bada ere, erabaki-guneetako eremuetara iristea lortu du. Hala ere, lan merkatuan, parte hartze soziopolitikoan, etxeko lanetan, emakumeen kontrako indarkerian eta pobrezia-eremuetan datuetan, nabarmena da, oraindik ere, emakumeak, emakume jaio izanagatik, bazterketa pairatzen duela. Bi sexuen arteko desoreka honen muina, gizarteak barneratuta dituen estereotipo eta eredu soziokulturaletan datza.

Testuinguru honetan, nabarmentzekoa da botere publikoen ardura zuzena. Lege eta arau juridiko ugari sortu da nazioarte, Europa, estatu, Autonomia Erkidego eta toki mailan, eta horien Helburua Emakumeen eta Gizonen Aukera-berdintasunerako Eskubidea


berreziki onartzea izan da. Besteak beste, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea, EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako IV. Plana, Martxoaren 22ko 4/2007 Lege Organikoa eta Europako Gutuna Emakumeek eta Gizonen Tokian Tokiko Bizimoduan izan behar duten Berdintasunerako. Hortaz, Elgoibarko udalaren erronka nagusia testu legalatan jasotzen den berdintasun eskubidea praktikan erabiltzea izango da. Plan hau garatu ahal izateko, Udalak emakumeen eta gizonen egoerari buruzko diagnostika egin du, non hobetu beharreko puntuak eta indar-guneak agertzen diren. Plan honetan, sei esku-hartze arlo daude, eta bakoitzean, lortu nahi diren helburuak eta burutuko diren ekintzak zehaztu dira. Arloak honako hauek dira:

- Udala
- Kultura eta kirola
- Hezkuntza
- Lana
- Gizarteratzea eta Osasuna
- Hirigintza eta Ingurumena

Plan hau Udalbatzak onartu aurretik, jendaurrean jarri zen elgoibartarren partaidetza bermatzeko. Plana osatzeko, baita emakumeen topaketetan parte hartu zuten emakume elgoibartarren ekarpenak ere jaso ziren.

Plana martxan jarri dela kontuan izanik, ikastetxe, enpresa, elkarte, eragile eta herritarrak orokorrean animatu nahi ditugu Berdintasun Zerbitzutik antolatzen diren ekimen, ekintza eta jardunaldietan parte hartzera, guztiona baita, aukera berdintasuna bermatzearen

ardura. Badakigu lan asko egin beharra dagoela eta bidea luzea izango dela, baina ez dugu etsi behar. Gizonen eta emakumeen elkarbizitzarako oinarriak berdintasunetik errotuz, guztion artean gizarte justuagoa eraiki ahal izango dugu.



Alfredo Etxeberria Murua
Elgoibarko alkatea

1. Arloa • Udala

2. Arloa • Kultura eta Kirola

3. Arloa • Hezkuntza

4. Arloa • Lana

5. Arloa • Gizarteratzea eta Osasuna

6. Arloa • Hirigintza eta Ingurumena

1. Arloa Udala**1.1 HELBURUA:**

Kargu politikoek eta teknikoek udalaren politikan genero-ikuspegia ezartzeko konpromisoa eta etengabeko jarduna sortzea.

EKINTZAK

1.1.1. Urteko udal aurrekontuan berriazko partida bat sortzea berdintasunerako planaren ondoriozko ekintzak abiarazteko.

1.1.2. Planaren edukiak ezagutaraztea Udalaren beraren barne-mailan eta Udalaren zerbitzuetan eta partaidetza aktiborako mekanismo bat ezartzea.

1.2 HELBURUA:

Udalak azpikontraturiko enpresen konpromisoa eta etengabeko jarduna sortzea emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan.

EKINTZAK

1.2.1. Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua edota emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunaren arloan barne-kudeaketarako konpromisoa duten enpresen kontratazioa lehenestea.

1.3 HELBURUA:

Udalaren langile eta kargu politiko guztiek beren gain hartzea Udalaren berdintasunerako I. Barne-planaren edukien erantzukizunak (arloak, helburuak eta ekintzak).

EKINTZAK

1.3.1. Bilerak egitea arloko kargu politikoekin eta I. Planaren ekintzen pertsonal tekniko arduradunarekin.

1.4 HELBURUA:

Udalaren langile guztiak jabeaztea genero-berdintasuna eremu guztietan onartu beharraz

HELBURUAK ETA EKINTZAK**EKINTZAK**

1.4.1. Urtero emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko bi saio sortzea eta ematea udal arloan, funtzioen edo lanpostuen beharren neurrietarako.

1.4.2. Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasunari eta arlo bakoitzarekin lotutako politika publikoei buruzko jardunaldietara eta mintegietara joatera bultzatzea pertsonal politikoa eta teknikoa.

1.5 HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen berdintasunezko tratua ezartzea udaleko pertsonalak eta Udalak eginiko azpikontratek sortutako dokumentuetako hizkeran eta irudietan.

EKINTZAK

1.5.1. Udalaren hizkera eta irudiaren erabileraren gaineko gomendioei buruzko Alkatetza Dekretu bat onestea Udalaren Antolamenduari buruzko Arautegian sartzeko.

1.5.2. Udalaren pertsonalarentzako berdintasunezko hizkeraren eta irudien erabilerari buruzko Gomendioen Eskuliburua egitea eta argitaratzea.

1.5.3. Udaleko langileek tresnak eta laguntza teknikoa ematea Udalak sortzen dituen administrazioko dokumentuetako (memoriak, aktak, txostenak, etab.), argitalpenetako eta kanpainetako irudien eta hizkeraren erabilera berrikusteko eta, hala denean, egokitzeko genero-ikuspegitik.

1.5.4. Azpikontraturiko obraren edo zerbitzuaren ondoriozko dokumentu idatzi eta ikonografiko guztietako hizkeraren eta irudien berdintasunezko tratua egiteko konpromisoa baldintza teknikoaren eta administratiboaren orrietan ezarrita duten enpresen kontratazioa lehenestea.

1.6 HELBURUA:

Emakume langileen berriazko beharrak ezagutzea lanean egun duten posizioa hobetzeko EKINTZAK

1.6.1. Emakume langileen eskariak ezagutzeko galdetegi bat egitea, lanean egun duten posizioa hobetze aldera.

1.7 HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen kopuruan oreka sustatzea aukeraketarako epaimahaietan, barne-kudeaketako batzordeetan eta pertsonaleko batzutan, genero-estereotipoak alde batera utzita EKINTZAK

1.7.1. Kontratazio epaimahaiak, barne-kudeaketako batzordeak eta pertsonaleko batzak sortzea emakumeen eta gizonen presentzia orekatuarekin, araudiak eskaturiko espezializazioa eta titulazio akademikoa errespetatuz betiere.

1.8 HELBURUA:

Genero-ikuspegia udaleko arlo guztietan ezartzeko bidean aurrera egitea. EKINTZAK

1.8.1. Sexuaren aldagaia Udalaren aplikazio informatiko garrantzitsu guztietan ezartzea.

1.8.2. Datuak sexuaren arabera biltzea, aztertzea eta interpretatzea udalaren eta mankomunitateko jarduketan eta zerbitzuen plangintzan, erabileran eta eskuratzeko moduan.

1.8.3. Udaleko pertsonalaren partaidetza duten udal estatistiketan generoa aztertzei buruzko gida bat egitea.

1.8.4. Udalean burutzen diren administrazio egintzen eta arauen genero-eraginari buruzko ebaluazioak egitea, Eusko Jaurlaritzaren gomendioaren arabera.

1.8.5. Genero-ikuspegia ezartzea garaturiko administrazio egintzetan eta arauetan.

1.8.6. Herritarren Arretarako Zerbitzuan genero-ikuspegia sartzeko prozesuan aurrera egitea zerbitzu hori planifikatzean, abiaraztean eta ebaluatzean, betiere beste zerbitzu batzuetan heda daitezkeen estrategiak eta tresnak garatuz.

1.9 HELBURUA:

Berdintasunezko udal gobernuaren eraketa sustatzea. EKINTZAK

1.9.1. Emakumeek politikan duten partaidetzari buruzko jardunaldia antolatzea.

1.10 HELBURUA:

Elgoibarko emakumeak eta gizonak genero-berdintasunaz jabeaztea EKINTZAK

1.10.1. Emakumeentzat funtsezkoak diren egunak ospatzea jabeazteko jarduerak antolatzea hala nola martxoak 8 (Emakumearen Nazioarteko Eguna), azaroak 25 (Emakumearen kontrako Indarkeriaren kontrako nazioarteko eguna), etab.

1.11 HELBURUA:

Gaitasun pertsonalak garatzea, emakumeak beren autonomia ekonomikoaz eta erabakiak hartzeko esku hartu beharraz jabeazteko. EKINTZAK

1.11.1. Lidergoari, negoziarioari, gatazkak konpontzei eta abarri buruzko ikastaroak, jardunaldiak, etab. daudela jakinaraztea langileei eta horietan parte hartzea bultzatzea.

1.11.2. Jabetze-ikasgela martxan jartzea Debarreneko eskualdean

1.12 HELBURUA:

Lan koordinatu bat sustatzea berdintasunaren gaia lantzen duten instantziekin, bertan parte hartzen duten udaletako emakume langileen jabetzea kudeatzeko.

EKINTZAK

1.12.1. Parte-hartze aktiboa izatea Berdinsarean; horretarako, sarean sartzeko gestio guztiak egingo dira eta sare horrek antolaturiko lan-taldeetara eta bileretara joango da.

1.13 HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen presentzia orekatua erraztea lan-taldeetan, genero-mainstreaming-a ezartzeko sortuko diren udal tresnetan.

EKINTZAK

1.13.1. Emakumeen eta gizonen berdintasunezko partaidetza sustatzea Udalean sortuko diren lan-talde guztietan.

1.14 HELBURUA:

Udaletxeko gizon langileen artean erantzukidetasuna bultzatzea.

EKINTZAK

1.14.1. Udaleko langileak jabeatzeko barne-kanpaina bat egitea, besteen laguntza behar duten eta laguntza hori behar ez duten pertsonak zaintzeko baterako erantzukizuna sustatzeko.

1.15 HELBURUA:

Pertsonaleko administrazioak eta personaleko batzak beste udal batzuetan edo herri administrazio batzuetan bateratzearen arloan abiarazitako bateratze-neurriekin eta jardunekin bat egiten duten pertsonen datuen ezagutza sustatzea.

EKINTZAK

1.15.1. Urteko txosten bat egitea Debabarreneko udaletan bateratze-neurriekin bat egiten duten gizonen eta emakumeen datuekin, Aldundiaren, EAren, etab. beste estuku batzuen datuak.

1.15.2. Beste udal edo herri administrazio batzuetan bateratzearen arloan abiarazitako jardun onei buruzko informazioa ematea.

1.15.3. Beste udal edo herri administrazio batzuetan bateratzearen arloan abiarazitako beste jardun onei buruzko jardunaldi bat antolatzea.

1.15.4. Udaleko gizon langileek ezarritako bateratze-neurriekin bat egitea sustatzea.

1.16 HELBURUA:

Sexu-jazarpena prebenitzea lanean EKINTZAK

1.16.1. Prebentziorako eta jarduteko protokoloak ezartzea lanean sexu-jazarpenaren aurrean, Udalhitz Hitzarmenaren eremuan.

1.17 HELBURUA:

Min fisikoa, sexuala edo psikologikoa izateko arriskuan dauden emakume langileentzako segurtasun neurriak ezartzea.

EKINTZAK

1.17.1. Gizarte langileek ikusitako arriskuak ezagutzea.

2. Arloa Kultura eta Kirola**2.1 HELBURUA:**

Kirolaren eskaintza eta praktika dibertsifikatzea eta emakumei tradizionalki gizonezkoen kirolak egiteko eta gizoni tradizionalki emakumezkoen kirolak egiteko posibilitateak ematea.

EKINTZAK

2.1.1. Eskola kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketak egitea.

2.1.2. Federaturiko kirolaren bereizketan eragina duten genero-faktoreei buruzko ikerketak egitea.

2.1.3. Aurrekontuen betearazpenari eta kirol federatuaren arloko herri guneen erabilerari buruzko azterketa.

2.1.4. Genero-estereotiporik gabeko kirola sustatzeko jabeatzeko kanpainak egitea.

2.1.5. Klubetako zuzendariak generoaren arloan gaitzea.

2.1.6. Baliabideak eta diru-laguntzak edo bestelako laguntzak ematea helburu hori lortzeko programak edo jarduerak dituzten kirol elkarteei eta taldeei.

2.1.7. Ikastetxeei aholkuak eta laguntza emateari eustea genero-ikuspegia eta hezkidetzaz sartzeko kirol programetan.

2.2 HELBURUA:

Kirola egiten duten emakumeen portzentaia eta haien interesen arabera kirola aukeratzeko posibilitateak handitzea.

EKINTZAK

2.2.1. Aukera-berdintasunarekin lotutako irizpideak ezartzea udalerriko kirol elkarte eta taldeentzako diru-laguntzen deialdietan.

2.2.2. Emakume kirolaren arloan dituzten interesei, beharrei eta igurikapenei buruzko ikerketak egitea.

2.2.3. Emakume gutxi dauden kirolerako ikastaro monografikoak garatzea.

HELBURUAK ETA EKINTZAK

2.2.4. Adin guztietako emakumeek kirola egiteko sustapenaz jabeatzea eta informazioa ematea.

2.2.5. Emakumeentzako informazio orokorrak garatzea kirol instalazioei dagokienez.

2.2.6. Kirol eskaintza egokitzeari eustea, emakumeek beharren azterketetan adierazitako eskariei erantzuna emateko.

2.2.7. Guraso bakarreko familientzako kuotak izatea polikiroldegian.

2.3 HELBURUA:

Emakumeek hedabideetan duten presentzia handitzea, kultur eta kirol jardueretan duten presentzia ikusarazteko berdintasun baldintzetan, baita emakumeak jabeatzea erraztea ere.

EKINTZAK

2.3.1. Kultura eta udal kirolen arloek garaturiko programen eta jardueren informazioaren tratamendua aztertzea genero-ikuspegitik.

2.3.2. Kulturaren eta kirolaren arloan adituak diren udalerriko emakumeen zerrenda bat egitearekin jarraitzea.

2.3.3. Emakumeek eginiko kultur eta kirol jarduerak eta berdintasuna sustatzen duten jarduerak ezagutaraztea.

2.3.4. Emakumeek gizartean eta politikan duten partaidetzari buruzko azterketa bultzatzea, elkarteetan eta erakunde politikoetan eta sindikaletan osotasunean duten presentzia kontuan izanik.

2.4 HELBURUA:

Udalerriko elkarteek kultur, kirol eta aisialdiko jarduerak planifikatzea eta burutzea genero-ikuspegitik.

EKINTZAK

2.4.1. Laguntza tekniko eta, diru-laguntza ematea genero-ikuspegia haien egituretan eta lan-eremuen garapenean

txertatzeko prozesuan dauden erakundeei.

2.4.2. Azpikontrataturiko enpresei eta udalerrian kulturaren eta kirolaren arloetan lan egiten duten erakundeei trebakuntza eta laguntza teknikoa genero-ikuspegia ikuspegitik.

2.4.3. Herritarrei ezagutaraztea kirol eta kirol arloak berdintasunerako tokiko planaren garapenean buruturiko politikak eta lorturiko emaitzak.

2.4.4. Udalerriko kultur elkarteek berdintasuna sustatzeko arte eta kultur lehiaketak egitea.

2.4.5. Kultur eta kirol elkarteek hizkeraren eta irudien erabilera ez sexista sustatzea.

2.4.6. Trebakuntza eta orientazioa ematea genero-ikuspegia erakundeetan eta oro har elkarteetan sartzea sustatzeko.

3. Arloa Hezkuntza

3.1 HELBURUA:

Ikastetxeak jabeaztea hezkidetzaren programetan ezartzeko Berritzegunaren bidez eta ezarpen hori sustatzea. EKINTZAK

3.1.1. Hezkuntzako udal arlo edota sailtako pertsonal teknikoa trebatzea (eremu formala edo ez formala) hezkidetzaren eta genero-ikuspegia ezartzeko tresnak eskuratzearen inguruan.

3.1.2. Ikastetxeetan eta hezitzaile eta gurasoen elkarrean artean hezkidetzaren inguruko errealitatea eta beharrak zehazteko azterketak egitea.

3.1.3. Hezkidetzari buruzko trebakuntza eta aholkuak ematea haur hezkuntzako ikastetxeetako, ludoteketako, "gazte taldeetako", udal euskaltegiak, aisialdi hezkuntzako eta hezkidetzako, etab. hezitzaileei eta zuzendaritzako taldekoei.

3.1.4. Hezkidetzako esperientziak trukatzeko guneak sortzea ikastetxeetan eta hezkuntzako guneetan.

3.1.5. Trebakuntza/hezkuntzako programak eta hezkuntza programa osagarriak diseinatzea haur eskoletan, aisialdiko eta hezkuntzako beste gune batzuetan genero-ikuspegitik, hezkidetzaren eta kulturen arteko ikuspegia txertatuz.

3.1.6. Hezkidetzaren arloko aholkularia sortzea proposatzea, hezkuntzako udal arloei eta sailei atxikia.

3.1.7. Programak diseinatzen eta kudeatzen dituzten erakundeekin hezkidetzako jardueren garapena sustatzea.

3.1.8. Hizkera eta irudien erabilera ez sexistaren erabilera sustatzea.

3.2 HELBURUA:

Erantzukidetasuna handitzea etxeko lanean eta neska-mutilak zaintzeko lanean.

HELBURUAK ETA EKINTZAK

EKINTZAK

3.2.1. Gurasoak, irakasleak eta begiraleak erantzukidetasunaren arloan informatzeko edota jabeazteko programak egitea.

3.2.2. "Erantzukidetasunaren astea" egitea udalerrian.

3.2.3. Hezkuntzako programak garatzea haur eskoletan eta udalaren eskumeneko beste hezkuntza gune batzuetan, baita etxeko lanean eta neska-mutilak zaintzeko lanean erantzukidetasuna handitzeko hezkuntza programa osagarriak ere.

3.2.4. Erantzukidetasuna sustatzen duten materialak eskuratzeko modua erraztea haur eskolei, ludotekei, "gazte taldeei", udal euskaltegiei, etab.

3.3 HELBURUA:

Emakumeek lanbide heziketako zikloetan duten partaidetza handitzea, bereziki tradizioz gizonezkoenak diren zikloetan. EKINTZAK

3.3.1. Sexistak ez diren lanbide orientazioko programak garatzea udalerriko ikastetxeetan.

3.3.2. Bokazio-aukeraketa ez sexista sustatzen duten kanpainak egitea.

4. Arloa Lana

4.1 HELBURUA:

Udalerriko emakumeek lanean aritzeko aukerak eta lanaren kalitatea hobetzea.

EKINTZAK

4.1.1. Lanbide heziketako ikastaroen kopurua handitzea eta heziketa horri eustea LHko ikastetxeen eta LANBIDEren arteko lankidetzaren bidez.

4.1.2. Trebakuntza ematen duten ikastetxeek azterketa bat egitea, familia-kargak dituzten emakumeak laneratzeko arazoa kudeatzeko moduari buruzkoa.

4.1.3. Lanean diharduten emakumeen behar espezifikoak aztertzea, haien interesen arabera ikastaroak planifikatzeko edo horretarako pizgarriak emateko.

4.1.4. Informazioaren eta lanaren teknologia berriei buruzko ikastaroen antolaketa sustatzea.

4.1.5. Amatasun eta aitatasun lizentzien, senideak zaintzeko eszedentzien, etab. erregulazioa ezagutaraztea udalerriko langileei.

4.1.6. Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzea udalerriko enpresen artean (trebakuntza, informazioa, berdintasun planak egitea jardun ona...) jabeazte-kanpainen bidez: jardunaldiak, topaketak, etab.

4.1.7. Jarraipena egitea enpresentzako neurriak baliozkoak diren ala ez jakiteko.

4.1.8. Udalaren eremuko langabezi tasak eta okupazio-tasak, kategoriak eta trebakuntza ezagutzea, adinaren eta sexuaren arabera banakatuta.

4.2 HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen desberdintasuna txikitzea kopuruen aldetik teknologia eduki altuko eta ezagutzako puntako lan teknikoetan, emakumeen partaidetza handituz.

HELBURUAK ETA EKINTZAK

EKINTZAK

4.2.1. Emakumeentzako lan-trebakuntzako eta trebakuntza-laneko programak garatzea sektorean kontrata daitezten.

4.2.2. Teknologia eduki altuko puntako sektoreetako lan teknikoetara bideraturiko trebakuntza-ibilbideak eta lan-eremuak jakinaraztea ikastetxeei.

4.3 HELBURUA:

Emakumeen eta gizonen desberdintasuna txikitzea kopuruen aldetik tradiziozko industri sektoreetako lan teknikoetan, emakumeen partaidetza handituz.

EKINTZAK

4.3.1. Udalaren eremuko langabezi tasak, okupazio-tasak, kategoriak eta trebakuntza ezagutzea, adinaren eta sexuaren arabera banatuta.

4.3.2. Emakumeentzako lan-trebakuntzako eta trebakuntza-laneko programak garatzea industriaren sektorean kontrata daitezten.

4.3.3. Jarraipena egitea enpresentzako neurriak baliozkoak diren ala ez jakiteko.

4.3.4. Enpresariak tradiziozko industri sektoreetan emakumeak kontratatzearen arloan dauden jardun onez jabeazteko jarduerak egitea.

4.3.5. Eskualdeko ikastetxeetako (lehen eta bigarren hezkuntza) irakasle eta orientatzaileentzako trebakuntza eta informazio kanpainak egitea, eskualdeko industri sektore erakargarria dutela ezagutu dezaten eta eskualdeko industriaren sektorearen erakargarritasun hori ikasleei transmititzeko gai izan daitezten eta, era berean, industriaren eremuko lan teknikoetara eta teknologikoetara bideraturiko trebakuntza-ibilbideak indartzeko gauza izateko.

4.3.6. Emakume ikasleek eskualdeko industriaren errealitatea ezagutzeko kanpainak egitea.

4.3.7. Eskualdeko ikastetxeek emakume ikasleak hartzeko kanpainak egitea.

4.4 HELBURUA:

Etxeko eta zaintza lanetan ematen den denboran emakume eta gizonen artean dagoen desberdintasuna gutxitzea.

EKINTZAK

4.4.1. Aholkuak ematea amatasun edota aitatasun baimenak eta besteen laguntza behar duten pertsonak zaintzeko baimenak hartzen dituzten pertsonen, lanpostura itzultzean.

4.4.2. Erantzukidetasunerako lehiaketa bat sortzea udalerrien artean.

4.4.3. Erantzukidetasunean aurrera egin beharri buruzko eztabaida publikoa sustatzeko kanpainak abiaraztea.

4.4.4. Denbora-bankuen sorrera sustatzea.

4.4.5. Udalerriko biztanleek pertsonak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emandako denboraren erabilerrari buruzko azterketa bat egitea eta ezagutaraztea.

4.4.6. Bateratzeari buruzko tokiko itunak egitea.

4.5 HELBURUA:

Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea ahalbidetzeko baldintzak sortzea.

EKINTZAK

4.5.1. Laneko bilerak edo hainbat pertsonaren parte-hartzea dakarren edozein jarduerak egiteko ordutegi-tartea zehaztea.

4.5.2. Zerbitzu publikoak eta pribatuak bateratze-beharretara egokitzeko mailaren azterketa bat egitea.

4.5.3. Enpresa pribatuko langileak bateratzearen inguruan dauden neurriez, bateratzerako lan eskubideez eta abarrez jabeazteko kanpainak eta ekintzak egitea.

4.5.4. Informazio eta aholkularitza zerbitzua sortzea, bateratzea

bermatuko duten neurriak edota zerbitzuak abiarazi behar dituzten enpresa pribatuentzat.

4.5.5. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea laguntzeko neurriak edota zerbitzuak garatzea, eskola aldiaren iraupenarekin lotuta ez daudenak.

4.6 HELBURUA:

Emakumeen enplegua sustatzea landa-eremuan.

EKINTZAK

4.6.1. Emakumeek landa-guneetan enpresak sortzea sustatzen duten programak egitea.

4.6.2. Nekazaritzaren gizarte irudia positibo bihurtzeko kanpainak egitea, zehazki emakumeek eginiko jarduerak.

5. Arloa *Gizarteratzea eta Osasuna*

5.1 HELBURUA:

Tratu txarren eta sexu-erasoen biktimak laguntzeko eta babesteko eskariei koordinazio, kalitate eta eraginkortasun irizpideekin erantzutea, tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko EAEko udalerrietako tokiko protokoloak ezarrita.

EKINTZAK

- 5.1.1. Genero-indarkeriaren biktimak diren emakumeak laguntzarekin eta esku-hartzearekin lotutako gaiak sartzeko udalaren enplegu publikoko gai-zerrendan.
- 5.1.2. Udaleko pertsonal teknikoari edota indarkeriaren biktimak diren emakumei lege eta psikologiaren arloko aholkuak ematen dizkieten erakunde kudeatzaileak trebatzea berdintasunaren arloan, kultura desberdinen ikuspegia barne.
- 5.1.3. Udaletako berdintasuneko eragileak eta pertsonal teknikoa trebatzea jarduteko tokiko protokoloak garatzeko eta bultzatzeko.
- 5.1.4. Topaketak egitea jarduteko tokiko protokoloak abiarazteko interesa duten udalen eta horrelako protokoloak dituzten udalen artean.
- 5.1.5. Emakumeen kontrako indarkeriari buruzko datuak ezagutaraztea.
- 5.1.6. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen aurrean jarduteko tokiko protokoloak egitea.
- 5.1.7. Udalaren laguntza juridikoa eta psikologia emateko baliabideak indartzea tratu txarren eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeentzat.

5.2 HELBURUA:

Udalerrian diskriminazio anitza jasaten duten emakumeen egoera gehiago ezagutzea.

EKINTZAK

- 5.2.1. Zaintzaren zeharkako kostuei buruzko dibulgazio eta dokumentu programak sortzea zaintzaile informalentzat.

HELBURUAK ETA EKINTZAK

- 5.2.2. Gizarte ekintza arloek zerbitzu espezifiko bat sortzea autonomiarik ez duten pertsonak laguntzen dituzten emakumei edota pertsonari laguntzeko eta orientazioa emateko.
- 5.2.3. Gizarte baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeen gizarte baliabideekin lotutako beharren estaldura-maila aztertzea.
- 5.2.4. Arduradun politikoei jakinaraztea pobrezian eta baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeen gizarte beharrei aurre egiteko udal estaldura.
- 5.2.5. Pobrezian bizi diren emakumeek eta gizonek eskaturiko diru-laguntzak bizkor eskuratzeko bideak sortzea.
- 5.2.6. Gizarte baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeen enplegua sustatzeko neurriak eta kontratazioa bultzatzeko programak diseinatzea eta abiaraztea.
- 5.2.7. Baztertuak izateko arriskuan dauden eta etxebizitza eskuratzeko emakumeen kopurua handitzeko neurriak diseinatzea eta abiaraztea.
- 5.2.8. Gizarte baztertuak izateko arriskuan dauden eta aniztasun funtzionala duten edota beren autonomia sustatzeko laguntza behar duten emakumeen beharren errealitatea eta estaldura-maila aztertzea.
- 5.2.9. Gizarte Prestazio eta Osasun arloak eginiko jarduerak herritarrei ezagutaraztea.

5.3 HELBURUA:

Udalerrian baztertuak izateko arriskua duten taldeen egoera ezagutzea genero-ikuspegitik.

EKINTZAK

- 5.3.1. Toki administrazioko eta hirugarren sektoreko erakundeen pertsonal teknikoa trebatzea gizarte baztertuak izateko arriskuan dauden emakume etorkinen atentzioa eta esku-hartzea hobetzeko tresnetan.

- 5.3.2. Gizarte baztertuak izateko arriskuan dauden emakume etorkinen beharren errealitatea eta estaldura-maila aztertzea.
- 5.3.3. Baliabideak baztertuak izateko arriskuan dauden emakume etorkinen berariazko beharretara egokitzea.
- 5.3.4. Emakume etorkinen topaketarako foroen sorrera sustatzea.
- 5.3.5. Famili erantzukizunak dituzten eta bakarrik dauden emakumeen beharrak ezartzea gizarte bazterketaren kontrako programen diseinuan.
- 5.3.6. Emakume etorkinak gizarte zerbitzuetan sartzeko modua erraztea, haien trebakuntza eta laneratzea errazteko.

5.4 HELBURUA:

Udalerriko ginekologia zerbitzua hobetzea.

EKINTZAK

- 5.4.1. Arloan eskumena duten erakundeekin akordioak bultzatzea udalerriko emakume guztiei atentzio genikologikoko zerbitzuak bermatzeko.

5.5 HELBURUA:

Herritarrak osasun orokorrak jabearaztea, nesken, nerabeen eta emakume helduen osasuna sustatuz.

EKINTZAK

- 5.5.1. Haurrentzako eta nerabeentzako osasunerako hezkuntza programetan sartzeko elikaduraren gaineko gaitzen eragina murrizteko.
- 5.5.2. Osasunaren sektorean edota aholkuak ematen dituzten kontseiluetan lantzea osasunarekin eta generoarekin lotutako gaiak.
- 5.5.3. Elikaduraren inguruko gaitzei eta genero-ikuspegitik dituzten arriskuei buruzko informazioa emateko kanpainak egitea.
- 5.5.4. Elikatzeko ohitura osasungarriak hartzearen garrantziaz jabearazteko eta informatzeko kanpainak egitea.
- 5.5.5. Ongizate fisikoak eta mentalak jabearazteko eta informatzeko

kanpainak egitea, betiere genero-ikuspegiaren aldetik.

- 5.5.6. Ongizate fisikoaren eta mentalaren arloko tailerrak antolatzea emakumeentzat. Diru-laguntzak ematea elkarteei osasun programak egiteko.
- 5.5.7. Elkarteei eta ikastetxeei diru-laguntzak emateari eustea osasunaren prebentziorako jarduerak antola ditzaten.
- 5.5.8. Emakumeen osasunari buruzko prebentzio eta informazio kanpainak proposatzea osasun zentroetan.
- 5.5.9. Emakumeak itxaroteko geletan daudela baliatzea emakumeen egoerari eta eskubidei buruzko informazioa emateko orriak, aldizkariak, prentsako laburpenak, etab. erabiliz.
- 5.5.10. Pertsonal sanitarioa jabearaztea emakumeen eskubideak urratzen diren egoerak detektatzeko modua errazteko eta Berdintasun Zerbitzuarekiko koordinazioa sustatzea.
- 5.5.11. Emakumeek euren burua zaintzearen garrantzia irakastea emakumei, baita osasunaren erantzukizuna familiako beste pertsona batzuen ardurapean uzten irakastea ere.
- 5.5.12. Emakumeen sexualitateari buruzko gogoetarako tailerrak egitea eta sexu-aukerei buruzko informazioa ematea (lesbianismoa, heterosexualitatea, etab.).
- 5.5.12. Bereziki emakumei eragiten dieten laneko arazoak eta gaixotasunak aintzat hartzea sustatzea.
- 5.5.14. Alkoholismoak eta tabakismoak emakumeen osasunean dituzten ondorioei eta arriskuei buruzko informazioa ematea.
- 5.5.15. Eskolako haurrentzako prebentzio-programak baliatzea haurrak aukera-berdintasunaz jabearazteko.
- 5.5.16. Arriskuko jokabideak dituzten gazteak laguntzeko programetan aitek eta amek inplikazio-maila bera izatea bultzatzea.
- 5.5.17. Sexu osasunaren eta ugalketaren osasunaren arloko informazioa eta prebentzioa indartzea.
- 5.5.18. Sexu hezkuntzako programa integrala ikastetxeetan eta sexuari buruzko informazio bulegoa sortzea.

6. Arloa Hirigintza eta Ingurumena

6.1 HELBURUA:

Hiria planifikatzeko eta diseinatzeko irizpideak identifikatzea eta aplikatzea, bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea errazteko.

EKINTZAK

6.1.1. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzeko oztopoei eta jardun onari edo bateratzea errazten duten elementuei buruzko diagnostikoa egitea hiriaren plangintzari eta diseinuari dagokienez.

6.1.2. Hiriaren plangintzaren eta diseinuaren arduradunak generoaren eta bateratzearen arloan trebatzea hiriaren plangintzan.

6.1.3. Egon dauden barrera arkitektonikoak kentzea, zaintza lanak aurrera eramatea oztapatzen dutenak.

6.1.4. Herri gunek eta erabilera kolektiboko gunek pribatuak zaintza-lanak egiten dituzten pertsonentzat egokitzea.

6.1.5. Jolas egiteko gunek, berdegunek, korridore berdeak, sare berdeak, etab. udalerrietan sortzea sustatzea bizitza pertsonal, familiarra eta laborala bateratzea errazteko.

6.1.6. Bizitza pertsonala, familia eta lana bateratzea sustatzen duten alderdiak aintzat hartzea Hirigintza Plan Orokorren Berrikuspenean.

6.2 HELBURUA:

Landa-eremuko emakumeen eta gizonen beharrak ezagutzea.

EKINTZAK

6.2.1. Udalerriko landa-guneetako biztanleek irisgarritasunaren, segurtasunaren eta garraioaren arloan dituzten beharren azterlan parte-hartzailea egitea, sexuaren eta adinaren arabera banatuta, eta hobetzeko proposamenak garatzea.

6.3 HELBURUA:

Emakumeak seguru sentitzen ez diren udalerriko tokiak

HELBURUAK ETA EKINTZAK

identifikatzea, toki horiek desagerrarazteko neurriak abiarazteko. Emakumeak seguru sentitzen ez diren toki gehiago ez agertzeko irizpideak ezartzea.

EKINTZAK

6.3.1. Elgoibarko Emakumeak eta gizonak seguru sentitzen ez diren udalerriko tokiei buruzko diagnostikoa egitea, hainbat faktore aintzat hartuta: segurtasun pertsonala, bide-segurtasuna, etab.

6.3.2. Araudia betetzearen inguruko jarraipena egitea.

6.3.3. Kexak eta iradokizunak biltzeko zerbitzua sortzea.

6.3.4. Ikusitako hutsuneak apurka-apurka egokitzea, eta beste neurri batzuen artean, udalerriko gunek guztien nahikoa argiztapena eta garbitasuna bermatuko da.

6.4 HELBURUA:

Emakumeek eta gizonen eginiko ekarpenen gizarte mailako onarpena orekatzea onarpen hori hiriko elementuen bidez egiten denean (kalea, plaza, monumentu izenak, etab.).

EKINTZAK

6.4.1. Kale, plaza eta abarrerako izenak aukeratzeko prozesuei buruzko araudia sortzea.

6.4.2. Kale, plaza, monumentu eta elementu sinbolikoen izenak aztertzea.

6.4.3. Emakumeen izenak kale, plaza, monumentu eta abarretan ezartzeko aukera ebaluatzea.

6.4.4. Emakumeen ekarpenak nabarmentzeko ibilbide historiko-kulturalak diseinatzea eta abiaraztea.

6.4.5. Herritarrek arlo honetan dituzten eskariak eta proposamenak kudeatzeko bideak sortzea.

6.4.6. Udalerriko gizarte, ekonomi eta politikako emakumei buruzko ikerketa historikoa egitea eta argitaratzea.